



KOLDO MITXELENA KULTURA ETXEA
C MAILA
URDANETA 9
URDANETA 7, ERREGE KATOLIKOAK 2, SANCHEZ TOCA 4 eta URBIETA 35


1993ko erreforma aurreko egoera.
Egileak eta data: Ramon Cortazar eta Luis Elizalde, 1896

Deskribapena

Postetxearen ondoan dago eta Artzain Onaren plazako hegoaldeko lerrokadura osatzen du, perspektiba hondo gisa, katedralaren albo batean. Hura baino lehen eraiki zuten, Bigarren Hezkuntzako Probintzia Institutua hartzeko. 1993an, barrutik guztiz eraberritu zuten eta fatxadak besterik ez ziren mantendu, kultura etxe bihurtzeko. Aurretik, ingeniariaren eskola gisa erabili zuten. Eraberritze lan hori Angel de la Hoz eta Cristina Fontan arkitektoek egin zuten (esku hartzea gaur egungo arkitekturaren formen eta espazioen bidez ebatzi zuten). Fatxadek, nagusiki, konposizioaren irizpide eklektiko bati jarraitzen diote. Formen jatorria neoklasikoa bada ere, eskala txikiagoko zatikatzea ohikoa da mendearen amaiera aldeko adibide ugarran, bai eta neurriei eta proportzioei zorrotz ez jarraitzea ere (fatxadaren gorputz nagusiko ordena gainjarriarekin gertatzen den bezala).

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: fatxada osoa eta estalkiko pabilioiak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Artzain Ona" E mailako multzo katalogatuaren barruan egotearen ondoriozkoak; ez dira handitzeak nahiz jasodurak baimentzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.